



Arroitzjauregi

etxebizitza

Aldacrak: Landena / Jauregi

Ahozkoa: ArroitaJauregi / Jáuregi / Landena

*“... la casería de Landa arroita-
jauregui y pertenecidos radican-
te en la Cofradía de Murgoitio
jurisdicción de la Anteiglesia de
Berriz... es de dos viviendas y se
compone de piso bajo con dos
cocinas, dos cuartos y portalada
con cuadras; principal con sus
salas y cuartos dormitorios;
y además dos camarotes y
pajares. Ocupa con inclusión
del horno y zaguan ciento
ochenta dos estados o seis áreas
y noventa y dos centiáreas...”*
DJE 4/78 or. (1879)



43° 9' 24"

2° 33' 53"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Bizitza biko baserri honen gainean topatu du-
gun lehendabiziko erreferentzia 1704koa izan
arren (*Arroyta Jáuregui*), badakigu baserria zaha-
rragoa dela eta XVI. mendean gutxienez koka-
tu behar dugula. 1704an hasi eta gaur egun
arte erolda guztietan *Arroita Jauregui* moduan
agertzen bada ere, bertakoei *Jáuregi* esaten dio-
te, familiaren abizena, alegia; horrez gain, *Land-
ena* moduan ere ezagutzen da.

XIX. mende hasieran, erre ondorenean, jaso
bazuten ere, Berriz inguruan aurreko mendean
ohikoa zen tipologian eraiki zen, altueran na-

barmenduz bereziki denboraren joana, solairu
bat gehiago erantsi baitzioten eta leihoak gehitu
eta haunditu. Hala ere, lehenengoa da dotoree-
na, balkoiaren burdineriak eta leihoen neurriak
argi adierazten duten moduan. Betiko legez,
simetrikotasuna da ezaugarria. Ardatzean,
sarrerako arkua, gainetiko balkoiek eta ganba-
rako leihotxoak. Albo banatan, bina leiho, bata
bestearen gainean, txikienak bigarren pisukoak
izanik. Arku eta leihoen inguruko hareharri ko-
loretsuak oso kontraste ederra egiten du fatxada
zuriarekin.

toponimia

“Arroita” toponimoaz eta “jauregi” hitz arruntaz osatutako izena. Bizkaian ohikoa da baserriak multzotan agertzea, eta auzunearen izenaz hornituta. Kasu honetan, etxe hau jauregi bat izan zela adierazten zaigu. Ahozko ebakera, arrun-
tena da bigarren osagaia baino ez erabiltzea eta izen osoa gutxietan erabiltzen da, nahasteko aukera dagoen kasuetan
baino ez (ArroitaJauregi eta TrañaJauregi desberdintzeko, esaterako). Landena izena berria da, eta bertakoen deitura
erabiliz sortu zen. Bizkaian oso arruntak dira -ena amaiera duten etxe izenak; baina berriagoak dira Nafarroan baino,
eta, horregatik, ez dute deiturarik eman. Horrelako izenak etxe kopurua nabarmen handitzean sortu ziren, eta oinarrian,
jabearen edo bertan bizi zenaren ezizena, deitura edo lanbidea dute.